



EUDELEK ETAK ERANGINDAKO ATENTATUA **ERABAT GAITZETSI NAHI DU ETA EUSKADIKO** **UDAL GUZTIEI ETA GIZARTEARI BIHAR** **12:00ETAN KONTZENTRAZIO-DEIA EGITEN DIE**

Bilbao, 2009ko ekainaren 19a. Gaur ETAk Arrigorriagan egindako atentatu basatiaren aurrean, zeinetan Eduardo Antonio Pueyes García polizia nazionala hil duten, EUDELek bere arbuiorik irmoena adierazi nahi dio ETArek indarkeriari eta azpimarratu nahi du demokraziatik eta bizitzarekiko errespetutik abiatuta soilik lortuko dugula Bakea. Hori dela eta, EUDELek Euskadiko udalei bihar, **ekainak 20**, udaletxe aurrean kontzentratzeko deia egiten die. **12:00etatik 12:15era.**

Zentzu horretan, Euskadiko Udalen Elkarteak Euskal Gizartearen aurrean hurrengo adierazi nahi du:

Lehena- EUDELek aburuz edozein herritarren kontra atentatua egiten duenak, euskal gizartearen kontrako atentatua egiten du.

Bigarrena- Gure gizartea anitza dela onartzen dutenak, hots, gurea bezalako gizartea aberasten duten aukera politiko, sozial eta kultural guztiak bere osotasunean aintzat hartzen dutenak baino ez dira onartuko demokrazian.

Hirugarrena- Euskadiko Udalen Elkartearen iritziz pertsona eta gizarte-erakundeek aurkako edozein atentatu, mehatxu edota gogorkeria jasangaitza da, beraz, gaur goizean Arrigorriagan izandako atentatua gaitzetsi nahi du eta familiarekiko elkartasuna adierazi.

Gure artean “ETA SOBERAN DAGO”.